



Bidelagun elkarteko ordezkariak, konpromiso berriaren aurkezpenean.
GIZARTEA

Lagun-Bide Zerbitzuak enpresa sozial eta solidarioa aurkeztu du Bidelagun elkarteak

Bertze lanen artean, bigarren eskuko arropa bilduko du eskualde osoan paratuko diren 15 edukiontzien bitartez



Eskualdea | 2014-03-06 | 11:12 | Testua: TTIPI-TTAPA | Argazkia: Alicia del Castillo

Bidelagun elkarteak gizarte konpromiso berri bat hartu du: Lagun-Bide Zerbitzuak izeneko enpresa sozial eta solidarioa martxan paratzea. Martxoaren 5ean elkartearen egoitzan egin zuten aurkezpenean jakinarazi zutenez, «behar gehien dituztenen artean lanpostuak sortzea» da helburu nagusia.

Bidelagun elkarteko Isidro Herguedasek aipatu zuenez, proiektua ez da ideia berria: «Duela urte batzuk zenbait pauso ematen hasi ginen Centro de Inserción Sociolaboral delakoa eskualdean martxan paratzeko asmoarekin. Bilerak egin genituen bata eta bestearekin, baina ez zituzten fruiturik eman: batzuk «ez zela dirurik», bertze batzuk «diru publikoarekin ez dela esperimintatzen» erranez, eta denetan borondate falta». Laguntza publikoak gero eta murriztagoak izaten ari zirela, ildo horretatik ez zutela deus erdietsiko eta beharrak gero eta eta handiagoak zirela ikusita, «gure kabuz mugitzea erabaki genuen erantzun bat emateko asmoarekin».

Enpresa sozial eta solidarioaren erranahia ere azaldu zuten aurkezpenean: «Gure helburu nagusia eragin soziala izatea dela, etekin ekonomikoa lortzea baino gehiago; ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen ditugula modu ekintzaile eta berritzailean; lortzen ditugun irabaziak helburu sozialak lortzeko erabiltzen ditugula eta elkarteak modu arduratsu eta gardenean kudeatzen dugula, langile, bezero eta interes-taldeen inplikazioa lortuz».

Lagun-Bide Zerbitzuak, dagoeneko, jarduera aunitz eskaintzen dituen enpresa da. Erraterako, eskualde osoan arropak biltzen dituzte edukiontzien bitartez eskualde osoan, Zugarramurditik Berara, arropak berrerabiltzeko asmoarekin. 15 edukiontzi paratuko dira herri batzuetan eta mantso mantso herri guztietara iritsiko dira. Beran, Lesakan eta Elizondon bina edukiontzi paratuko dituzte eta Etxalar, Doneztebe. Ituren, Oronoz, Irurita, Arizkun eta Erratzun bana.

Bigarren eskuko arropa dendak irekitzeko asmoa dute Elizondon, Donezteben, Lesakan eta Beran. «Dagoeneko fite Donezteben irekiko dugu lehenengo denda, Parrokia karrikako 18an» aipatu zuen Herguedasek. Honekin lotuta, arropa konpontzeko tailerrak, trapuak saltzea enpresa eta tailerretan eta salmenta saltzaile haundiek egiteko asmoa dute. Lortuko den dirua jornalak, alokairuak, aseguruak, segurantza soziala eta abar ordaintzeko erabiliko dute.

Gainera, garbiketak orokorrean, etxeko brikolajea, posta bidalketa lanak eta ingurumenarekiko sentsibilizazioa eta birziklapena ere eskainiko ditu Lagun-Bide Zerbitzuak enpresak.

Diario de Noticias.

Bidelagun Elkarteak presenta Lagunbide

Sábado, 8 de Marzo de 2014 - Actualizado a las 06:06h

ELIZONDO - Bidelagun Elkarteak, la asociación de voluntariado y de fomento de la solidaridad, ha presentado su programa Lagunbide, una empresa que prestará todo tipo de pequeños servicios y de recogida para venta de ropa y otros artículos. La recogida se llevará a cabo a través de contenedores de ropa que se irán colocando en todos los pueblos de la cuenca del Bidasoa. - Nafarpress / Foto: Ondikol

Diario vasco

BAZTAN-MALERREKA

Lagun-Bide, la nueva empresa social y solidaria de la asociación Bidelagun



REALIZARÁN DIVERSOS TRABAJOS Y ADEMÁS ABRIRÁN TIENDAS DE ROPA DE SEGUNDA MANO EN LA COMARCA

09.03.14 - 00:11 -

:: ALICIA DEL CASTILLO | BAZTAN.

«Que quede claro que no es una empresa sin ánimo de lucro. Claro que tenemos ánimo de lucro, con los beneficios se invertirá en nuevos proyectos y en que más personas puedan tener trabajo», explica Mikel Gereka. Junto a Juan M^a Azkarate e Isidro Herguedas, de Bidelagun, la asociación de voluntariado de Baztan y Malerreka que ahora también dará trabajo, han presentado este nuevo proyecto. Han creado una empresa un tanto especial. Lagun-Bide es «una empresa social y solidaria» que ofrecerá diferentes servicios. La idea no es nueva, ya hace algunos años se dieron algunos pasos para abrir un 'Centro de Inserción Sociolaboral' en la comarca. Pero no dio sus frutos y con la llegada de la crisis las ayudas se resintieron. «Las necesidades son cada vez mayores para muchas personas y por eso precisamente hemos visto necesario crear algo así», explican.

Que sea una empresa social y solidaria quiere decir que «nuestro objetivo principal es un fin social por encima de conseguir beneficios económicos. Y sobre todo, si se consiguen beneficios se reinvertirán en conseguir más objetivos sociales».

Ropa

Para comenzar van a poner en funcionamiento la recogida de ropa usada en toda la comarca y para ello van a colocar contenedores específicos. Para ello cuentan con la colaboración y el permiso de los ayuntamientos de Baztan, Zugarramurdi y Urdazubi y de las Mancomunidades de Malerreka y Bortziriak. En total se colocarán en los próximos días 15 contenedores de ropa y se podrá consultar en la web de Bidelagun, el lugar donde se han puesto. Dos estarán en Bera y otros dos en Lesaka y además habrá uno en Etxalar, Doneztebe, Ituren, Oronoz, Irurita, Elizondo, Arizkun y Erratzu. En los contenedores se podrá depositar en bolsas cerradas, ropa, calzado, sábanas, mantas y demás. «Eso sí, que se puedan reutilizar. Si son zapatos rotos y ropa sucia o con pintura, se tienen que depositar en otros contenedores».

Esa ropa servirá para abastecer tiendas de ropa de segunda mano que abrirán en Elizondo, Doneztebe, Lesaka y Bera. «La primera la

vamos a abrir en Doneztebe en breve, en la dirección Parroquia 18». También se realizará un taller de arreglos textiles, otro de realizar trapos y venderlos y por último, la ropa que no sirva para nada se venderá a otras empresas mayores.

Con el dinero que se obtenga se invertirá en los sueldos, alquileres, seguros, seguridad social, etcétera.

Limpiezas, bricolaje, etc

También van a llevar a cabo servicios de limpiezas generales, de bricolaje casero «pequeños arreglos», trabajos de reparto de publicidad y de sensibilización con el medio ambiente y reciclaje.

De momento ya han realizado algunos trabajos, como reparto de publicidad y limpiezas en garajes comunitarios, casas y también, a través del ayuntamientos.

Este proyecto es posible gracias a «los ayuntamientos y mancomunidades; Traperos de Emaús, con los que trabajarán, Juan Bautista Iturria Eraikuntzak que nos ha dejado una bajera para cinco años en Elizondo; Ramón Apezetxea, de la parroquia de Almandoz, por su ayuda económica; Foto Mena, por la publicidad; Fenrando Electrízitatea, y la empresa de voluntarios Secot», explican.

Cuentan con una bolsa de personas para sacar adelante todos estos servicios. «Nos llegan a través de los Servicios Sociales, es gente que puede estar en riesgo de exclusión social».

Udalbiltza

<https://www.youtube.com/watch?v=9k5MdcfzplY#t=90>

2014/06/20

UDALBILTZAK PIRINIOTAKO GARAPENERAKO DIRU LAGUNTZAK BANATU ZITUEN ATZO BAZTANGO UDALETXEAN

Udalbiltzak *Euskal Pirinioetan lan eta bizi* programaren barnean hautatutako 19 proiektuei diplomak banatu zien atzo Baztango Udaletxean. **6.000 euroko diru-laguntza emanen die ekimen enpresarial eta sozial haietako bakoitzari.** Hauen artean 3 Baztangoak dira: *Baztango Xurie*, *Belaun* eta *Zaharrak berri*, arropari bigarren bizitza emanaz.

Diplomen banaketa egin aitzin hitza hartu zuten **Garbiñe Elizegi** Baztango alkateak, **Maite Iturre** Baztango zinegotziak eta Udalbiltzako lehendakariordeak eta **Mertxe Aizpurua** Udalbiltzako lehendakariak.

Ongietorriarekin batean Piriniotako garapenerako **Nafarroako Gobernuak jartzen dituen zailtasunak aipatu zituzten**, foru administratibotik gero eta urrunago sentituz.

Horregatik udalbiltzak *Euskal Pirinioetan lan eta bizi* programa honekin zenbait egitasmoak aitzin egiteko bulkaldia eman die. Horrekin batean **Udalbiltzak euskal lurralde guzien arteko elkartasuna sustatu nahi du Euskal Herri orekatu eta kohesionatua lortzeko bidean.**

19 proyectos seleccionados en 'Euskal Pirinioetan lan eta bizi'



Proyectos. Representantes de los proyectos seleccionados.

- **UDALBILTZA DESTINA UNA SUBVENCIÓN DE 6.000 EUROS A CADA PROYECTO. EL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN ACOGIÓ EL ACTO DE ENTREGA DE DIPLOMAS A REPRESENTANTES DE**

LAS INICIATIVAS EMPRESARIALES Y SOCIALES

- A.D.C. | BAZTAN.

21 junio 201400:11

- 7
- 0
-
-

El ayuntamiento de Baztan acogía el jueves el acto de entrega de diplomas a representantes de los 19 proyectos seleccionados dentro del programa 'Euskal Pirinioetan lan eta bizi'. Udalbiltza destinará una subvención de 6.000 euros a cada una de estas iniciativas empresariales y sociales.

El acto comenzaba con el saludo de la alcaldesa de Baztan, Garbiñe Elizegi, que hablaba de «trabajar, buscar alternativas, hacer políticas por nuestros propios medios y generar nuevas oportunidades para la ciudadanía». Y añadía que «eso es lo que está haciendo Udalbiltza en colaboración con otros agentes locales por medio del programa 'Euskal Pirinioetan lan eta bizi', que en apenas unos meses ha supuesto un importante revulsivo para la zona, y ha permitido que decenas de emprendedores encuentren un impulso a sus proyectos».

Maite Iturre, vicepresidenta de Udalbiltza y concejala en Baztan, animaba a los habitantes de los Pirineos a seguir trabajando y apostando por el futuro de estos valles y daba la enhorabuena a los impulsores de los 19 proyectos seleccionados. «Confiamos en que estas ayudas os sean de utilidad para impulsar

vuestras ideas, y que contribuyáis de esta manera al desarrollo de los Pirineos Vascos», señalaba.

Mertxe Aizpurua, presidenta de Udalbiltza, recordaba la apuesta de la institución por ayudar a reducir los desequilibrios territoriales en materia de desarrollo, y de hacerlo sumando esfuerzos con los agentes sociales, las institucionales locales y toda la población. «Apostamos por el auzolan, por el trabajo comunitario, por fortalecer el tejido social y activar a la ciudadanía, con el objetivo de crear nuestras propias herramientas de progreso».

Recordaba que el programa de desarrollo económico y social para los Pirineos se extenderá a lo largo de tres años, entre 2014 y 2016, de forma que el próximo invierno el Fondo Vasco de Desarrollo y Cohesión de Udalbiltza lanzará una segunda convocatoria de ayudas, de similares características a la de este año.

Eragin

Dentro del programa 'Eragin', resultaban seleccionados 'Camping Asolaze en Isaba' con su proyecto para explotar el Campamento Municipal de Turismo de Asolaze (Belagua); 'Baztango Xurie' un proyecto para producir vino ecológico en Arizkun (Baztan). Ya cuentan con una plantación de 1,5 hectáreas y se proponen llegar hasta las 4 hectáreas, así como crear una bodega con capacidad para producir 20.000 litros al año; 'Trigo Limpio', proyecto para la venta directa de carne ecológica producida por ganaderos de la zona de Aribe; 'Proyecto de

producción de frutos pequeños', que pretende crear en Erro una explotación dedicada al cultivo ecológico de pequeños frutos y su posterior transformación y comercialización en fresco (frambuesa, grosellero, mora, arándano, fresa...); 'Belaun', cooperativa que reúne a siete ganaderos de Aldudes y Baztan, quiere ampliar la actividad de venta de la tienda que tienen abierta en la actualidad; 'Proyecto de aprovechamiento turístico en el valle de Aritzakun', que plantea crear una pequeña venta con servicio de comidas y, a medio plazo, un albergue de montaña con centro de información y actividades de ocio; 'Iratiko Xakiak', proyecto para crear una planta de transformación de alimentos de la zona; 'Eskutik, cuando quieres, a donde quieres', un servicio para Burguete y los valles de Erro, Aezkoa y Arce, por el que se va a ofrecer acompañamiento y apoyo a las personas mayores, o a aquellas que lo demanden en razón de circunstancias especiales, para mejorar su autonomía y calidad de vida, el acceso a los servicios y la movilidad; 'Explotación de caracol autóctono navarro' en Idoi (Esteribar); 'Recuperación de vivero Olaldea' para cultivo ecológico de frutos silvestres, explotación de bosque autóctono para la producción de castaña y nuez, para vivero y zona lúdica para visitas, cursos y talleres.

Garapen soziala

Dentro del programa 'Garapen soziala' está 'Lurzaindia: Préservons la Terre nourricière', que pretende preservar las tierras agrícolas para esta actividad, en el caso de que sus dueños o herederos no deseen continuar explotando el caserío; 'Gazteendako aurrezkirako lekuko taldea', un proyecto de

formación para la juventud; 'Euskarazko irratitailer eskaintza baten egituraketa', proyecto para crear talleres de radio en euskara, dirigidos a los centros educativos del área de los Pirineos; 'Vivre et travailler en Soule: L'Orientation des Jeunes adaptée aux spécificités du Territoire', para el desarrollo de una guía denominada 'Trabajar en Zuberoa'; 'Zaharrakberri: Arropari bigarren bizitza emanaz', proyecto de Bidelagun para la reutilización de ropa.

Elgarrekin

Dentro del programa 'Elgarrekin' están 'Pirinioetako agerkari digital euskalduna', proyecto para crear un medio digital en euskara para toda la zona de los Pirineos; 'Irati 4 valles, el corazón del bosque', proyecto transfronterizo que les permita abordar con una perspectiva amplia e integral la gestión conjunta del Irati; 'Renovando la antigua calzada del Pirineo y reconstruyendo puentes de unión' desde Donazaharre hasta Aoiz; 'La Montagne Basque 2014/2020', diagnóstico y un plan estratégico de desarrollo para la zona, promovida por Mancomunidades de Soule, Garazi-Baigorri, Iholdy Ostibaret, del País de Hasparren, de Errobi y Sur País-Vasco, y los Sindicatos de Gestión de la Montaña de Soule, de Ostabaret, de Cize y del valle de Baigorri.

Arranbela.

2014/06/20

**UDALBILTZAK PIRINIOTAKO GARAPENERAKO
DIRU LAGUNTZAK BANATU ZITUEN ATZO
BAZTANGO UDALETXEAN**



Udalbiltzak *Euskal Pirinioetan lan eta bizi* programaren barnean hautatutako 19 proiektuei diplomak banatu zien atzo Baztango Udaletxean. **6.000 euroko dirulaguntza emanen die ekimen enpresarial eta sozial haietako bakoitzari.** Hauen artean 3 Baztangoak dira: *Baztango Xurie, Belaun eta Zaharrak berri, arropari bigarren bizitza* emanaz.

Diplomen banaketa egin aitzin hitza hartu zuten **Garbiñe Elizegi** Baztango alkateak, **Maite Iturre** Baztango zinegotziak eta Udalbiltzako lehendakariordeak eta **Mertxe Aizpurua** Udalbiltzako lehendakariak.

Ongietorriarekin batean Piriniotako garapenerako **Nafarroako Gobernuak jartzen dituen zailtasunak aipatu zituzten**, foru administratibotik gero eta urrunago sentituz.

Horregatik udalbiltzak *Euskal Pirinioetan lan eta bizi* programa honekin zenbait egitasmoak aitzin egiteko bulkaldia eman die. Horrekin batean **Udalbiltzak euskal lurralde guziena arteko elkartasuna sustatu nahi du Euskal Herri orekatu eta kohesionatua lortzeko bidean.**

Ttipi- Ttapa



Maritxu Elkarrizan taldeko boluntarioa da eta asteartero joaten da Zahar Etxera Migel bisitatzera


GIZARTEA | ERREPORTAJEA → BOLUNTARIO GEHIAGO ERAKARRI NAHI DITUZTE

Laguntza eskainiz, irribarreen truke

Gizarteko beharrei erantzuteko ezinbertzeko lanabesak dira eskualdeko boluntario taldeak



Eskualdea | 2014-06-26 | 08:53 | Testua: Eneritz IRAOLA | Argazkia: Jokin APEZETXEA







Euren denbora jartzen dute bertzeen eskura, trukean irabazi ekonomikorik jaso gabe. Laguntasuna, laguntza... eskaintzen dute eta hala, bertzeak bertze paseorako lagun, irakasle edota auto gidari bihurtzen dira. Eskualdean, bi taldetan biltzen dira boluntarioak, TTIPI-TTAPA beraiekin bildu da eskaintzen duten zerbitzua ezagutzeko.

Boluntario izenak argi adierazten du, borondatea dela gakoa, segundoak kontatuz gabiltzan garaian minutuak oparitzen baitituzte. Oparitu edo partekatu, «eman adina jasotzen dugu boluntarioek bueltan» aipatu digute Elkarrizan eta Bidelagun Boluntario taldeetako kideek. Eskualde mailan modu partikularrean boluntario aritzen direnak bat baino gehiago izan arren, bi hauek dira talde egitura dutenak.

BIDELAGUN

Bidelagun Elkartean biltzen dira Baztan, Malerreka eta Bertizaranako boluntarioak eta dagoeneko 15 urte daramatzate lanean «1999an Baztanen bildutako boskote batek paratu genuen martxan. Gehienbat adineko jendearen inguruan zerbait egiteko beharra ikusi genuelako» azaldu digu Isidro Herguedasek, Bidelagun taldeko arduradunak. Gerora, pixkanaka beste behar batzuk sortzen joan direla azaldu digu eta hauei ahal den neurrian erantzuteko zerbitzua osatu dutela.

BIDELAGUNeko KIDE IZATEKO

- www.bidelagun.org
- 948 581 327
- 679 435 174
- bidelagun@hotmail.com

- Elizondoko egoitzan

ELKARRIZAN

Elkarrizan taldearen oinarria berriz, 2008an sortu zen Beran, bertako Udalak bultzatuta boluntario talde bat osatu zutenean. «Martxan hasi ziren baina denborarekin zerbitzua indarra galtzen ari zela ikusi zuten. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuengana etorri ziren orduan taldea indartu eta koordinatzeko laguntza eske» aipatu digu Jokin Apezetxeak, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako Langileak. Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean ari dira geroztik eta hala, boluntario taldeari beharrezko bultzada eman eta 2012an Lesakara zabaldu zuten zerbitzua. Gaur egun Bortzirietan egiten dute lan «baina boluntario gehienak Lesaka eta Berakoak dira» aitortu digu Jokin Apezetxeak.

ELKARRIZANEKO KIDE IZATEKO

- ssb@lesaka.net
- 948 635 036
- Etxalarko egoitzan
- Besta egunetan jartzen dituzten informazio postuetan

BOLUNTARIOEN PERFILA

Gazteen artean pixkanaka hedatzen doan arren, jende adintua eta erretiroa hartua dutenak dira orokorrean boluntario aritzen direnak. Historikoki emakumezkoak ziren gehienak, baina badirudi arlo horretan aldaketa gertatzen ari dela pixkanaka «gizonezkoek ez al dakigu zaintzen edo? Ez gara gai? galdetzen hasi zen jendea, eskerrak mentalitate aldaketa hau gertatu den» dio Apezetxeak. Herguedasek ere aldaketa hori gertatzen ari dela dio baina gaineratzen du «oraindik badela zer egina». Bi elkarteek zabaldu nahi dute boluntarioen sarea, eskaintzen duten zerbitzua sendoagoa izateko. Horregatik, «denbora librea izan eta laguntzeko borondatea duten guztiei boluntario izateko» deia luzatzen diete bi taldeetako kideek. «Behar sozialei erantzun bat eman eta norbere burua betetzeko, aberasteko modua da» gaineratzen dute. Aitziber Esnaolak ere, Elkarrizan taldeko kide gazteenetakoak azpimarratzen du «aunitz ikasten» ari dela esperientzia honetatik.

Interesa dutenek elkarteekin harremanetan jarri eta eskaini nahi duten zerbitzua zein den aipatu beharko dute. Elkarteak izanen dira gero beraiekin harremanetan jarriko direnak, bien artean zerbitzua zehazteko.

KONPAINIA

«Bertzeari laguntasuna eskaintzea, entzutea, bere alboan norbait duela - sentiaraztea... da aunitzetan konponbidea, gizarte honetako arazo - larrienetakoak bakardadea baita»

Jokin APEZETXEA (Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako Langilea)

KONPAINIA

«Boluntarioak ez gaude beste inori lana kentzeko, dohainik egiten dugu egiten dugun guztia. Pertsona jakin batzuei bertzenaz eskuratzerik ez duten zerbitzu bat eskaintzea da gure helburua»

Isidro HERGUEDAS (Bidelagun Elkarteko Arduraduna)

ESKAINNTZA ZABALA

Boluntarioek eskaintzen duten zerbitzurik ezagunena adinekoei zuzendutakoa da eta eskualdean ere hauxe da indar gehien duena. Elkarrizan boluntario taldekoak Berako eta Lesakako Adineko Egoitzetara joan ohi dira bisitan. Asteartero Lesakako adinekoei paseora laguntzen diete eta Berako Adineko Egoitzetara bisitan joateaz gain, kantu zaharrak abesten ere egoten dira elkarrekin ortzegunetan. Bidelagun boluntario taldekoak bertzalde, Elizondoko San Francisco Javier eta Benito Mennin daudenekin elkartu ohi dira.

Horretaz gain, autonomia puntu bat dutenen etxeetara ere joaten dira, beraiekin egon eta, hala, jarraipen bat egiten diete. Izan ere, Jokin Apezetxeak erran digunez «gizarteko egoerak biltzen dituzten begiak dira boluntarioak, etxeetan laguntza eskaini eta egon litezkeen beharrak ikusten dituztenak».

Ospitaletan laguntza ere eskaintzen dute bi elkarrekin. Sare familiar bat ez dagoen kasuetan boluntarioek betetzen dute laguntzaileen papera eta kontsultara lagundu edo ingresoetan konpainia egiten diete. «Gertatzen da aunitz euskaldunak diren adinekoekin, arrotza den ingurune batean egon eta gainera euskaraz hitz egiten ez duen batekin tokatzea. Kasu horietan lasaitasun handia ematen diete norbait ondoan izateak» aipatu digu Apezetxeak.

Aspacekoekin ere elkartzten dira Bortzirietako boluntarioak, abestu eta dantzatzuz ederki pasatzeko.

Jubiloteka zerbitzua ere eskaintzen dute Beran eta bertan eskulanak egin eta kantuan ere aritzen dira. Bertara joateko, garraio zerbitzua ere antolatu dute. Boluntarioak dira astelehen, asteazken eta ortziraletan lesakarrak Berara eramateaz arduratzen direnak, Aspacekoek uzten dieten furgonetan.

Helduen alfabetizazioa da boluntarioen lanaren bertze ardatzetako bat. Etorkinen integrazioa lortzeko, «tresna oso baliagarria bihurtu da gurean» dio Isidro «harrera egiten diegu, alfabetizazio kanpaina bat jartzen dugu martxan, bidea erraztu nahi diegu» azaldu digu. Malerrekan, gaztelania ikasteko talde bat orain sortzeaz daudela ere erran digu. Bortzirietan urteak dira zerbitzu hau martxan paratu zela eta zegoen behar bati irtenbidea eman zioten horrela, «euskara ikasi nahi zutenak Euskara Mankomunitatera bideratzen genituen, baina gazteleraz ikasi nahi bazuten aukerarik ez zutela nabaritu genuen, astean ordu eta erdiz klaseak ematen dizkieten boluntarioak topatu genituen, garai batean irakasle izandakoak edo bertzerik gabe irakasteko nahia zutenak».

Eskola laguntza edo klase partikularrak ere eskaintzen dituzte abuztuan. Astearte eta ortzegunetan, ordu eta erdiz elizak utzitako gela batean biltzen dira Lesakan zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleei laguntza eskaintzeko.

Horretaz gain, gizarte osoari zuzendutako zerbitzuak ere paratu dituzte martxan Bidelagunekoek. Bigarren eskuko arropa biltegi bat eta lan poltsa bat osatu dituzte eta bertan ere, boluntarioak ari dira lanean.

BOLUNTARIOEN ESKUBIDEAK

- Boluntarioki, modu librean eskaintzen duten zerbitzua da eta beraiek erabakiko dute zerbitzuaren maiztasuna eta iraupena.
- Behar dituzten argibideak, prestakuntza, orientazioa, laguntza eta, hala behar izanez gero, baliabide material guztiak jasotzea.
- Boluntariotzan aritzeagatik gerta litezkeen istripu eta eritasun arriskuen kontrako aseguruak izatea.
- Beren beharretan sortutako gastuak kobratzea (kilometrajea).

BOLUNTARIOEN BETEBEHARRAK

- Boluntario taldearekin hartutako konpromisoak bete eta taldearen helburuak eta araudia errespetatzea.
- Eskaintzen duten zerbitzuagatik edozein kontraprestazio materialik uko egitea: dohainik eskaintzen dute beren denbora.
- Zerbitzua jasotzen duenaren borondatea eta konfidentzialtasuna errespetatzea.
- Ahalik eta zerbitzu profesionalena eskaintzea, horretarako eskaintzen diren formazio saioetan aktiboki parte hartuz.

ZERBITZUA DA, EZ LANA

«Boluntarioak ez gaude lana inori kentzeko» erran digute hasiera hasieratik. Uste okerre segika, behin baino gehiagotan «nahasi izan da zaintzailearen paperarekin edo zerbitzu hauek eskaintzen dituzten profesionalei kalte egiten diegula erran izan dute. Baina guk ez dugu irabazi ekonomikorik lortzen eta eskaintzen duguna aldi bateko konpainia edo zerbitzu bat da». Ekonomikoki egoera zaila dutenei edota bazterketa sozial arriskuan daudenei, bertzela eskuratu ezinen luketen zerbitzu bat ematea da boluntarioen helburua. Gainera, Gizarte Zerbitzuekin etengabeko kontaktuan egon ohi dira, zerbitzua ikuskatzeko «mugak daude, eta horiek argi eduki behar dira. Edozein arazoren aitzinean gizarte zerbitzuengana jo behar dugu». Ikuspuntu profesional bat izaten jakin behar dute boluntarioek «pisu emozional handia du egiten dugunak eta prest egon behar dugu egoera desberdinetan nola jokatu jakiteko».

HARTU EMAN ESTUA

Boluntariotzari esker, «bertzela ezagutuko ez nukeen jendearekin harremanetan nago» aipatu digute. Adin, sexu eta jatorri desberdinetako pertsonak lotzen ditu boluntariotzak. Bata bertzearen errutinaren parte bihurtzen dira eta harreman «estuak» sortzen dira.

Guztiek bat egiten dute aipatzean eskaintzen duten denbora, ez dela galdutako denbora, irabazitakoa baizik, «nabari duzun esker onak barrua bete eta ongi sentiarazten zaituelako».

ELKARRIZAN ETA BIDELAGUN TALDEETAKO BOLUNTARIOEKIN SOLASEAN

IRAKATSI ETA IKASI

«Oso aberasgarria da besteei zerbait irakasten saiatu eta aurrerapausoak nola ematen dituzten ikustea»

Elina RODRIGEZ
Bidelaguneko boluntarioa Helduen alfabetizazioan

BEHARREI ERANTZUN

«Laguntza beharra zegoela nabaritu nuen eta aukera nuenez, nire esku zegoena egitea erabaki nuen»

Maritxu GAGO
Elkarrizan taldeko boluntarioa
Helduei laguntasuna eskaini

JENDEA EZAGUTU

«Bertzela jasoko ez luketen zerbitzua eskaintzen dugu eta harreman sozial berriak sortzen dira»

Santi MAYA
Elkarrizan taldeko boluntarioa
Jubilotekekako garraiolaria

BIKOITZA JASO

«Denbora eskaini ez, konpartitu egiten dugu. Guretik bi eman eta lau jasotzen ditugu bueltan»

Joxe Mari IRAZOKI
Elkarrizan taldeko boluntarioa
Helduen alfabetizazioa



Duela hiru urte bideo lehiaketa ere antolatu zuen Bidelagun elkarteak. Argazkian saridunak.

GIZARTEA

Sentsibilizazio kanpainaren baitan argazki eta lelo lehiaketa antolatu dute Baztan aldeko ikasleendako

Bidelagun Elkarteak eta Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko Gizarte Zerbitzuek



Baztan | 2014-10-03 | 07:29 | Testua: TTIPI-TTAPA | Argazkia: Artxiboko argazkia
Sentsibilizazio kanpainaren baitan, “Bestearen larruan jarri, zu zeu zertarako zaude prest?” izenburupean argazki eta lelo lehiaketa antolatu dute Bidelagun Elkarteak eta Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko Gizarte Zerbitzuek. Lehiakideek Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdiko ikastetxe edo Gizarte Zerbitzuen bidez parte hartzen ahal dute eta lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 14a izanen da.

Lehiaketa ikasleei zuzenduta dago eta lau kategoriatan banatua egonen da: Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak; Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak eta DBHko 3. eta 4. mailak.

Aurkezten diren lan gztiek argazki bat eta lelo bat izan behar dute, “Bestearen larruan jarri, zu zertarako zaude prest?” gaiaren inguruan. Leloak, guttienez esaldi bat eta gehienez hiru esaldi izanen ditu, euskaraz. Lanak formatu digitalean aurkeztuko dira azaroaren 14a baino lehen bidelagun@hotmail.com helbide elektronikoan edo baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko ikastetxeetan edo Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan.

Epaimahaia Bidelagun elkarteko kide batek, Gizarte Zerbitzuetako langile batek, argazkilari batek, euskara teknikariak eta Baztango udalekozinegotzi batek osatuko dute eta lan sarituak abenduaren 5ean aurkeztuko dira, Boluntarioen Egunean.